

Auzoz auzo

Altza

Kultur Astea ate joka

Korrika dela eta, Altzako Azpil euskaltegiak Kultur Astea antolatu du. Datorren astelehenean, hilak 12, hasiko da Kultur Astea eta larunbatean, hilak 17, amaituko da. Ekitaldi guztiak, rock kontzertua izan ezik, Casares kultur etxean egingo dira.

Hilaren 12an 19.00etan, Korrikaren XII. edizioaren aurkezpena egingo da. Bertan "Big Beñat", Fermin Muguruza musikariak aurtengo Korrikarentzat egindako abestia entzun eta izenburu bereko bideoa ikusi ahal izango dute altzatarrek. Era berean, egun horretan auzoko ikastetxeetako haurrek eta euskaltegiko irakasleek eginitako marrazkiekin osatutako erakusketa-lehiaketa inauguratuko da. Aipatu beharra dago ikusleek aukeratuko dutela marrazki egileen artean zeinek jantziko duen txapela.

Hilaren 13an, bestalde, "Altzaren mugak", Altzako Historia Mintegiak eginitako bideoaren euskarazko bertsioa ikusteko parada izango da. Gainera, mintegiko kideek gaiari buruz jardungo dute.

Hilaren 12an Azpil euskaltegiaren kultur astea hasiko da



Hilaren 17an Lisabo eta Asgarth taldeek jardungo dute Auzo Etxean.

Emanaldia 19.00etan hasiko da.

Ipuinak eta bertsoak

Asteazkena ere ez da egun batere lasaia izango. 18.30-etan Joxe Mari Karrera Oretako ipuin kontalariak "Kondo bakoitzak bere istorioa dauka" izeneko emanaldia eskainiko du. Ondoren, Kontseiluaren Plan Estrategikoa-aren aurkezpena egingo da.

Hilaren 15ean, Joan Mari Irigoien idazlearen txanda izango da. Altzatarak "Lur bat haratago" bere azken eleberria aurkeztuko du 19.00-etan. Hurrengo egunean, berriz, bertso saioa egingo da, Unai Elizasu, Aitor Larreta eta Imanol Esoain bertsolariekin. Gai jartzaile lanetan Jon Sanchez ariko da.

Esan bezala, hilaren 17an amaituko da astea Lisabo eta Asgarth taldeen kontzertuekin. Kontzertua Auzo Etxean egingo da.

Martutene

Ni ez naiz hori

Emakumearen Egunaren haritik, Martuteneko gaztelekuak antzerki emanaldia antolatu du. Hilaren 10ean izango da, 23.00etan Trinkete tabernan.

Idoia Sanchez tolosar pailazoak "Yo no soy esa" antzelana taularatuko du. Idoia, "Martirio" etxeoandre fina da. Beti lanpetu samar dabil. Baina egun batetik bes-

tera bere bizitza aldatu egingo da. Bat batean lasaia da bil, ez dauka etxeko lan askorik egiteko. Gauzak horrela, bere pertsonalitate ezkutua agerian geratuko da. Emakumea bera harri eta zur geratuko da bere ezkutuko Martirio-rekin. "Yo no soy esa" klown antzezlan da, eta bertan umorea da nagusi.

Masajea eta magia

Hilaren 13an kirol masajeari buruzko ikastaroa hasiko da gaztelekuan. Astearteetan egingo da 18.00etatik 20.00etara. Magia lantegia, berriz, hilaren 22an hasiko da. Bi saio izango dira, 22an eta 29an.

Antzezlanak Martirio izeneko etxeoandrearen gora-beherak hizpide ditu



Gaztelekuak antzerki emanaldia antolatu du.